



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko ekainaren 3a

39 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

—Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena, «Socialistas del Parlamento de Navarra», «Nafarroako Demokraten Elkargunea» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek aurkeztua (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

—Jabeldura, iruzur fiskalari aurka egiteko politikari eta horrek Nafarroako beken sisteman duen eraginari buruzkoa, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak “Eskualde edo Gutxiengoen Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna” berretsi du, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez Arte Batxilergoa euskaraz ikasi ahal izateko neurriak har ditzatela agintzen da, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldi baterako kontratuak finko bihurtzeko plan bat igor dezan. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak baztertua (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Administrazioan aparteko orduak ez egiteko beharrezko ebazpenak eman ditzan. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak baztertua (7. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—ASFA segurtasun-sistema Irurtzun-Altsasu trenbide-zatian jartzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (8. or.).

—Irurtzun-Altsasu trenbide-zatian gertatu diren istripuei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (8. or.).

—Iruñean eta Iruñerrian hirugarren adinekoentzako eraiki diren egoitzei buruzko galdera, Pedro M<sup>a</sup> Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak egina (9. or.).

- Ezintasunen bat izanik, zaharren egoitzetan sar daitezkeen 65 urtetik goitiko pertsonen kopuruari buruzko galdera, Pedro M<sup>a</sup> Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).
- Plan Gerontologikoak dakartzan proposamenak urratzeari buruzko galdera, Pedro M<sup>a</sup> Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).
- “Epizootien ondoriozko hilketen kalteordainak” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).
- “Eskualdearteko II. programako prestakuntza-ekintzak” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).
- “Giza-baliabideak baloratzeko ikastaroak. 5b helburuko P.O.” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- “Patata ekoizleen erakundeendako laguntzak” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- “Zerealen hazi ziurtatuaren erabilpena bultzatzea” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- “Eztiaren ekoizpena eta merkaturatzea hobetzea” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- “Kontratu homologatuak sustatzea” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- “Azienden lehiaketa morfologikoa” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Noingo aireportuan ematen duten aire-garraio zerbitzuari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyo Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Ibilgailuen zatikapenean ari diren enpresei buruzko galdera, Miguel Angel Larráyo Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).

**G SAILA:****Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Izendapen-proposamena (18. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

«Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Socialistas del Parlamento de Navarra», «Nafarroako Demokratien Elkargunea» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.** Foru Lege Proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena**

ZIOEN AZALPENA

Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua ezarri zuen jarduera ekonomikoan gaineko zerga urtero ordainduko dela, zenbateko osoa batera.

Hori karga bat izaten da ordaindu behar duen subjektu pasiboarentzako eta zailtasun bat Udala- rentzat, izan ere arazoak izan baititzake zenbatekoa borondatez ordaintzearekin, jendea ohituta dagoelako zerga berriak ordeztu duen zergaren zenbatekoa bitan, sei hilabetez behin, ordaintzera.

Oztopo horiek saihesteko, proposatzen da aurreikusitako araubidea gainditu eta beste bat ezartzea zergapekoentzat erosoagoa -toki entitateen dirubiltzea kaltetu gabe-, izan ere ordainketa ezarritako kuoten hainbanaketa giratuz egin baitaiteke.

**1. artikulua.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 155. artikuluko lehenbiziko bi idaztiak honela idatzirik geratuko dira:

1. Zergaldia urte naturala izanen da eta hari egokituko zaizkio tarifetan ezarritako kuotak.

2. Toki entitateek kuotak hainbanatu ahal izanen dituzte seihileko osoetan, izan ere, jarduera hasten den eguna urte naturalaren hasierarekin bat ez badator, kuotak hiruhilabeteka proportzionalki kalkulatuko dira eta urtea akitu bitartean gelditzen diren hiruhilabetekoak kobratuko dira, jarduera hasten denekoa ere sartuz.

Halaber, jarduerari utzi eta baja aurkeztuz gero, kuotak hiruhileko naturaletan hainbanatuko dira, beti ere uztea gertatzen den hiruhilekoa barne. Xede horrekin, subjektu pasiboek jarduera horretan aritu diren hiruhileko natural osoei dagoen kuotaren parte bat itzultzea eskatzen ahalko dute.

### **Azken xedapena**

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

## **Jabeldura, iruzur fiskalari aurka egiteko politikari eta horrek Nafarroako beken sisteman duen eraginari buruzkoa**

### *«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak iruzur fiskalari aurka egiteko politikari eta horrek Nafarroako beken sisteman duen eraginari buruz aurkeztu zuen jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### **JABELDURAREN EDUKIA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 179. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkeztu du iruzur fiskalari aurka egiteko politikari eta horrek Nafarroako beken sisteman duen eraginari buruz, Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak, Nafarroako beken sistema aplikatzeari buruz ari zela, ondokoa deklaratu du berriki:

“Hala ere, herri honetan gertatzen den iruzur fiskaleko egoeran, beken sistemak bidegabekeria handiak sortzen ditu. Biztanleetatik % 25ek iruzur fiskalen bat egiten du eta departamentu honek familien gastu-ahalmena kontrolatzeko iturri bakarra du: errenta aitoprenak. Horrek esan nahi du

beken sistemaren bidez biztanleen % 25 laguntzen ari dela, behar gabe.”

Argi dago Hezkuntza Kontseilariak onartzen duela Nafarroan % 25eko iruzur fiskala dagoela. Horrek berarekin dakar Nafarroan beken bitartezko birbanaketa politika bidegabeta egotea.

Parlamentari Talde sozialista, ondorioz, oso kezkatuta dago errealitate hori dela-eta, eta eza-gutu nahi du zer jarrera duen Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Kontseilariaren adierazpen horiek direla-eta, izan ere, errenta aitopena egiteko garaian adierazpen horiek ekar baitezakete herritar askok apuntatu nahi izatea iruzur egiten ari eta Nafarroako Gobernuaren beken sistemara bilduko diren biztanleen % 25 horretara.

Jabelduraren testua:

– Nafarroako iruzurgileen kopurua % 25 dela aintzat hartuta, iruzurgile horietatik zenbat kontrolatu dira 1997an? % 25 horretatik zenbat kontrolatzen ari da Gobernuak? Zer urrats eman behar ditu Gobernuak gainerakoak kontrolatzeko? Laburbilduz, iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko zer politika diseinatu du Gobernuak % 25 hori saihesteko?

– Zein urrats ematen ari da Gobernuak edo zein urrats emanen ditu, behin iruzur fiskalaren kopurua % 25 dela finkatu ondoren, beken sistema Nafarroan modu zuzenean aplikatu ahal izateko.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25ean

Bozeramailea: Carlos Cristóbal García

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak “Eskualde edo Gutxiengo Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna” berretsi du**

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak “Eskualde edo Gutxiengo Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna” berretsi du. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean hurrengo mozioa aurkeztu dugu Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Hauxe proposatzen dugu: Nafarroako Parlamentuak, bere jarrera finkatzeko, erabaki batean isla dezala bere atxikimendua nazio espainiarreko gobernuak Eskualde edo Gutxiengo Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna berresteko beharrari.

Berrespen horrek beharrezko eta egoki dirudi eskualde edo gutxiengo hizkuntzak babestu eta sustatzeko Europako herri eta eskualdeetan egin beharreko bidea Europarekin batera egiteko. Izan ere, herri eta eskualde horiek ekarpen garrantzitsua dira demokrazia eta kultur aniztasun printzipioak oinarri dituen Europaren eraikuntzan subiranotasun nazionalaren eta lurralde osotasunaren markoan, eta beti ere, kontutan hartuta Europako herrietako eskualde bakoitzeko egoera espezifikoak eta tradizio historikoak, gutunak berak dioen gisan.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena onets dezala proposatzen zaio Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari:

Nafarroako Parlamentua atxiki egiten zaio Senatuak 1998ko martxoaren 24an eginiko bilkuran onetsi zuen erabakiari; erabaki horretan Espainiako Gobernuak premiatu egiten da, beti ere autonomia erkidegoek beren hizkuntza propioekiko dituzten eskumenak errespetatuta baita ere, beraz, Nafarroako Foru Komunitatearenak, sendets dezan Eskualde edo Gutxiengo Hizkuntzei buruzko Europako Gutuna, aipatutako erabakian Senatuak eginiko modu berean.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25ean

Bozeramailea: Carlos Cristobal García

## **Mozioa. Horren bidez Arte Batxilergoa euskaraz ikasi ahal izateko neurriak har ditzatela agintzen da**

### **«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: Mozioa. Horren bidez Arte Batxilergoa euskaraz ikasi ahal izateko neurriak har ditzatela agintzen da. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakionak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Ezker Abertzalea Parlamentari Taldearen Bozeramailea den Patxi Zabaleta Zabaleta, Ganbararen Arautegiaren 192. artikuluen eta ondo-koen arabera, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatzeko hurrengo mozioa aurkezten du.

Hurrengo ikasturterako plangintzan, Gobernuak Batxilergoak euskaraz ikas ahal izateko bitartekoak bermatzeari ekin dio, Artezko Batxilergoaren kasuan ezik. Onartezina da salbuespen hau, besteak beste asko eta asko direlako euskaraz ikasteko gogo eta asmoa erakutsi duten ikasleak.

Halaber, onartezina da euskara ikasi nahi dutenek ahalegin berezia egin behar izatea, Zuzendaritzak eskola-ordutegiz kanpo ikastera behartzen dituelarik.

Bide beretik, onartezina da duela lau urtetik hona errotulazio, inprimaki, iragarki eta gainerako informazio-materialetan Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan jartzera behartzen duen 135/1994 Foru Dekretua ez ezagutzearena egitea Eskolako Zuzendaritzak.

Erabaki proposamena:

1. Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak zera agintzen dio Hezkuntza Departamentuari: 1998-99 ikasturtean "Arte-eskolak" eskeiniko duen Artezko Batxilergoa euskaraz ere ikas ahal izatea, horretarako "D" ereduko lerroa(k) zabalduko d(it)uelarik, matrikula kopuruaren arabera.

2. Hala nahi dutenek euskara ezkola-ordutegiaren barruan ikasi ahal izanen dute, horretarako Hezkuntza Departamentuak "A" ereduko lerroa(k) zabalduko d(it)uelarik, matrikula kopuruaren arabera.

3. Eskolako bulego, langela eta egoitzetako errotulazioa, paperen idazpuru eta senalizazioak, iragarki, xedapen eta mota guztietako publizitatea, eta informazio-liburuska eta kanpainetako material idatzi guztiak bi hizkuntzetan erabiliko dira, 135/1994 Foru Dekretuaren arabera.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 25ean

Bozeramailea: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldi baterako kontratuak finko bihurtzeko plan bat igor dezan**

### *LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK BAZTERTUA*

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aldi baterako kontratuak finko bihurtzeko plan bat igor dezan". Biltzarreko Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 1998ko maiatzaren 29an egindako bilkuran, mozioa baztertu zuen.

Mozio hori 1998ko maiatzaren 6ko 31 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Administrazioan aparteko orduak ez egiteko beharrezko ebazpenak eman ditzan**

### *LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK BAZTERTUA*

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Administrazioan aparteko orduak ez egiteko beharrezko ebazpenak eman ditzan". Biltzarreko Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak, 1998ko maiatzaren 29an egindako bilkuran,

mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1998ko maiatzaren 6ko 31 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**ASFA segurtasun-sistema Irurtzun-Altsasu trenbide-zatian jartzeari buruzko galdera***MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Miguel Angel Larrayoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak ASFA segurtasun-sistema Irurtzun-Altsasu trenbide-zatian jartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek

xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Ezker Batuko Nafarroako kongresista batek hala eskatuta jakitera eman dutenez, Estatuko 1998ko Aurrekontu Orokorretan bazegoen kontusail bat ASFA segurtasun sistema jartzeko Irurtzun eta Altsasu arteko trenbide-zatian. Horiek horrela, hauexek jakin nahi dira:

1.- Ba al dakizue ASFA sistema jarri ote duten aipatu trenbide-zatian?

2.- Foru Komunitatetik igarotzen diren gainerako trenbidetan ba al dago sistema hori ezarrita? Hala bada, zeinetan?

3.- Planteatuko al da ASFA sistema ezartzea oraindik horrelakorik ez duten zati guztietan?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 18an

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezáun

---

**Irurtzun-Altsasu trenbide-zatian gertatu diren istripuei buruzko galdera***JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Irurtzun-Altsasu trenbide-zatian gertatu diren istripuei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997ko martxoaren 31n tren bat atera zen bidetik Uharte Arakilen eta 16 pertsona hil ziren horren ondorioz, tamalez. 1997ko uztailean, Bakaikun oraingoan, Intercity batek kamioi baten



kontra jo zuen, trenbidea langarik gabeko pasabidetik zeharkatzen ari zenean. Hainbat zauritu izan ziren. Aurten ere, bultzia birritan atera omen da trenbidetik Altsasun eta Irurtzunen, ondorio larririk gabe, zorionez, komunikabideetan azaldu ez bada ere. Azkenik, maiatzaren 13an, ibilbide luzeko trena atera zen bidetik Etxarri Aranatzen. Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak ekinbiderik burutu al du RENFEren aurrean argibideak eskatzeko, Irurtzun eta Altsasu bitartean dagoen trenbide-zatian gertatu diren ezbeharren azalpenen bila?

2.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du RENFEri eskatzea segurtasun neurriak har ditzala horrelako istripurik berriz ez gertatzeko?

3.- Treneko makinista eta laguntzaileen sindikatuek salaketa egin omen du trenbide hori bertan behera utzita dagoela, Nafarroako Gobernuak ba al du horren berririk? Neurriren bat hartu al du horri buruz?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 18an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Iruñean eta Iruñerrian hirugarren adinekoentzako eraiki diren egoitzei buruzko galdera**

*PEDRO M<sup>a</sup> ANTUÑANO ZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro M<sup>a</sup> Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak Iruñean eta Iruñerrian hirugarren adinekoentzako eraiki diren egoitzei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Pedro Antuñano Zárragak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

1. Zenbat plaza sortu dira azken 12 hilabeteetan zaharrentzako egoitzetan eta zenbat sortuko dira hurrengo 12 hilabeteetan Iruñeko barrutian eta eskualde osoan?

2. Egoitzetako plaza horietatik, zenbat kudeatuko dituzte irabazi asmoko sozietateek?

3. Plaza guzti horietatik, zenbat itunduko ditu Nafarroako Gobernuak (Nafarroako Gizarte Ongizate Institutua) eta zenbat dirutan?

4. Zein irizpide finkatu dira edo zein irizpide jarraitu nahi dira itun horiek egiteko orduan? Zehaztu, mesedez, plaza bakoitzaren prezioa, tokia, espezialitatea, zerbitzuak, irabazi asmokoa den ala ez den eta abar.

5. Itun horiek zenbat irautea aurreikusi da eta zer gertatuko da epe hori bukatzen denean?

6. Nola baloratu da plaza horiek sortu eta ituntzeak Nafarroako beste eskualde batzuetan izan diren eragina?

7. Zergatik sustatzen du Nafarroako Gobernuak irabazi asmoko egoitzak Iruñeko eragin esparruan sortzea, Iruñeko eragin esparruaz kanporako beste irizpide bat duen bitartean?

8. Zer arrazoi daude zentro bakoitzeko plaza kopurua justifikatzeko?

9. Zer eragin du Osasun Sistema Publikoan aurreikusitako tokietako batean egoitza berria sortzeak? Zehaztu, mesedez, larrialdi medikoak, geriatriako, psikiatriako, neurologiako eta abarretako balizko laguntza espezializatua.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 20an

Foru Parlamentaria: Pedro Antuñano Zárraga

## **Ezintasunen bat izanik, zaharren egoitzetan sar daitezkeen 65 urtetik goitiko pertsonen kopuruari buruzko galdera**

*PEDRO M<sup>a</sup> ANTUÑANO ZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro M<sup>a</sup> Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak ezintasunen bat izanik, zaharren egoitzetan sar daitezkeen 65 urtetik goitiko pertsonen kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Pedro Antuñano Zárragak, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

1. Zenbat pertsona daude Nafarroan hirurogeita bost urtetik gorakoak, eguneroko eskuzko jar-

dueretarako gaitasun osorik ez dutenak (AIDL: telefonoa, erosketak, sendagaiak, janaria...)?

2. Zenbat pertsona daude Nafarroan hirurogeita bost urtetik gorakoak, eguneroko oinarrizko jardueretarako gaitasun osorik ez dutenak (ADL: jatea, garbitzea, bainatzea, oinez ibiltzea, nor bere burua zaintzea, kontinentzia...), datorren urtean edo datozen bi, hiru edo gehiago urteetan egoitza-plaza bat bete beharko dutenak?

3. Zer bilakaera izan dute azken bost urte hauetan egoitzetako itxaron-zerrendek?

4. Zenbat pertsona daude gaur egun itxaron-zerrenda horietan?

5. Pertsona horiek guztiak egoitza mota berara joatekoak al dira edo bereizketaren bat eginen da patologien, laguntza edo gizarte beharren, aurreikusitako daitezkeen lan kargen eta abarren arabera? Zehaztu, mesedez, puntu horiek guztiak.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 20an

Foru Parlamentaria: Pedro Antuñano Zárraga.

## Plan Gerontologikoak dakartzan proposamenak urratzeari buruzko galdera

PEDRO M<sup>a</sup> ANTUÑANO ZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro M<sup>a</sup> Antuñano Zárraga Foru Parlamentari jaunak Plan Gerontologikoak dakartzan proposamenak urratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Pedro Antuñano Zarragak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Oraintsu onartu duten Plan Gerontologikoak hauxe ezarri du: 2000. urtean estaldura homogenea erdietsiko da osasun eta gizarte barrutietan, 100 nagusiko 2 posturekin. Aurreikuspen horiek oinarritzat harturik, 490 toki lagundu eta 125 buruaskientzat sortzea proposatu dute eskualde horretan.

Plan Gerontologiko berak dio, halaber, ez dagoela bizitzeko tokien eskariari buruzko azterketa onik, eta hauxe proposatu du, lerro batzuk aurrerago: azkar heldu behar zaio arlo honi, eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka egokia ahalbidetzeko (102. orrialdea).

Irabazteko asmoa duen ekinbide pribatuak bizitzeko toki lagunduak eskaintzea ere jorratu da eta hauxe proposatu dute horren aurrean: Administrazioari dagozkion erregulazio, ituntze, jarraipen eta kontrola ahalik eta gehien garatzeko beharra, kalitatezko arreta ziurtatzeko aipatu egotzetan.

Komunikabideek azken egunotan zabaldu dutenaren arabera, eta administrazioek ez dute ezeztatu, ekinbide pribatuak aurki sortuko omen ditu, Gizarte Ongizatearen sendespenarekin, 740 postu lagundu Iruñean eta Iruñerrian. Hasieran aurreikusitakoa baino % 60 handiagoa da kopuru hori eta planak behin eta berriz ematen duen

estaldura homogenezko proposamenetik aldentu egiten da. Era berean, badirudi postu itunduen prezioa erabaki dutela, hileko 205.000 pezeta inguru, eta ez dutela egoitza bakoitzari dagokion zerbitzuen multzoa finkatu, Plan Gerontologikoak hala eskatu arren. Edonola ere, prezio hori irabazasmorik gabeko ongizate-zentro pribatuei ordaintzen zaiena baino milaka pezeta batzuk gehiago da (osasun laguntza haien kontura dela esan dezaket arren).

Badirudi azkarrago ibili direla ekinbide pribatuari egoitza-postuak eraikitzeke erraztasunak ematen, planak berak aipatzen zituen ments garrantzikoenei arreta egiten baino, alegia: eskaria behar bezala aztertzea (gutxi gorabehera, eta azkenengo gripea baino lehen, 200 lagun) eta erregulazio, ituntze eta abarreko bideak ahalik eta gehien garatzea. Kontu hau ere atera daiteke: egoera honetan, litekeena dela eskaintza eskaria baino handiagoa izatea, eta egoiliarak egoitza batetik bestera mugitzea. Bi ondorio izango lirateke: kostu handiagoak Administrazioarendako eta erakunde batzuetan postu libreak sortzea, bideragarritasun zaila, beraz, horientzat. Egoiliar batzuei tokiz aldatzeko gogoia berotzea ere gertatu omen da.

Egoera horrela, hurrengo informazioa eskatzen dut:

1.- Zergatik urratu da hain epe laburrean Plan Gerontologikoak proposatzen duena?

2.- Zer irizpideri jarraitu zaio egoitzak irekitzeko baimenak emateko onuradunei?

3.- Zertan oinarritu dira itunak ezartzeko?

4.- Zer datu, edo aurreikusteko zer parametro fidagarri erabili du Administrazioak instituzionalizazio beharren balioespena egiteko? Horrelakorik izatekotan, zer aurreikuspen dago hurrengo urteerako?

5.- Baloratu al da horren beste postu sortzeak Nafarroako beste eskualde batzuetan izan dezakeen eragina?

6.- Baloratu al da dagokion osasun barrutian izango duen eragina? eta, Nafarroako Osasun Zerbitzua ados al dago?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 20an

Foru Parlamentaria: Pedro M<sup>a</sup> Antuñano Zarraga

## “Epizootien ondoriozko hilketen kalteordainak” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Epizootien ondoriozko hilketen kalteordainak” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Andrés Basterra Layanak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren

babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako 1998ko Aurrekontu Orokorretan, “Epizootien ondoriozko hilketen kalteordainak” izeneko kontusaila onetsi zuten, 70 milioi pezeta-kopuruarekin. Lerro horrekin, urtero-urtero laguntzen zaie abeltzainei, derrigorrez kendu behar diren gaitzen ondorioz heldu diren gastuak ordaintzen.

Hauxe jakin nahi dut:

1.- Hitzartutako ekintzen zerrenda eta ekintza bakoitzaren zenbatekoa.

2.- Burutu diren ekintzen zerrenda eta ekintza bakoitzarengatik ordaindu den zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 19an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## “Eskualdearteko II. programako prestakuntza-ekintzak” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Eskualdearteko II. programako prestakuntza-ekintzak” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Andrés Basterra Layanak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren

babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako 1998ko Aurrekontu Orokorretan, “Eskualdearteko II. programako prestakuntza-ekintzak” izeneko kontusaila onetsi zuten, 32 milioi pezeta-kopuruarekin.

Ekintza horiek garrantzi handia dute gure Komunitaterako. Europako Gizarte Fondoak ere finantzatzen ditu.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1.- 1998.ean zehar sustatu diren jardueren zerrenda, eta baita jarduera bakoitzean 1998ko aurrekontuen kontura hitzartu den diru-kopurua.

2.- Burutu diren ekintzen zerrenda eta ekintza bakoitzarengatik ordaindu den zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 19an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## “Giza-baliabideak baloratzeko ikastaroak. 5b helburuko P.O.” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Giza-baliabideak baloratzeko ikastaroak. 5b helburuko P.O.” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Andrés Basterra Layanak, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren

babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako 1998ko Aurrekontu Orokorretan, “Giza-baliabideak baloratzeko ikastaroak. 5b helburuko P.O.” izeneko kontusaila onetsi zuten, 140 milioi pezetako kopuruarekin.

Prestakuntza-ekintzek ezinbesteko izaten jarraitzen dute landa-ingurunerako. Hala ikusi zuten aurrekontua egiteko garaian kontusail hau emendatzeko eskatu zuten erakunde politiko batzuek, eta lortu egin zuten, lortu ere, zorionez.

Erakunde politiko honek hauxe jakin nahi du:

1.- Hitzartu diren ikastaroen zerrenda, eta ikastaro bakoitzaren zenbatekoa.

2.- Burutu diren ikastaroen zerrenda eta ikastaro bakoitzarengatik ordaindu den zenbatekoa.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 19an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## **“Patata ekoizleen erakundeendako laguntzak” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera**

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Patata ekoizleen erakundeendako laguntzak” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layanak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikita-

ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako 1998ko Aurrekontu Orokorretan, “Patata ekoizleen erakundeendako laguntzak” izeneko kontusail berria onetsi zuten, milioi bat pezetarekin. Kopuru hori emenda daiteke.

Hauxe jakin nahi dut:

1.- Burutu diren ekintzen zerrenda, eta hitzartutako kopuruak.

2.- Lerro honen kontura burutu eta ordaindu diren ekintzen zerrenda.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 19an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## **“Zerealen hazi ziurtatuaren erabilpena bultzatzea” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera**

*ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Zerealen hazi ziurtatuaren erabilpena bultzatzea” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layanak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikita-ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren

babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako 1998ko Aurrekontu Orokorretan, “Zerealen hazi ziurtatuaren erabilpena bultzatzea”

izeneko kontusail berria onetsi zuten.

Zerealak ekoizteko hazi ziurtatua erabiltzea sustatu nahi zen, MAPAk iragarri berrikuntzen aurrean.

Hauxe jakin nahi dut:

1.- Burutu diren jardueren zerrenda, eta horietariko bakoitzarengatik hitzartu dena.

2.- Lerro horren kontura burutu eta ordaindu diren jardueren zerrenda, baita bakoitzak zenbat jo duen ere.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 19an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## **“Eztiaren ekoizpena eta merkaturatzea hobetzea” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera**

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Eztiaren ekoizpena eta merkaturatzea hobetzea” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layanak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren

babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako 1998ko Aurrekontu Orokorretan, “Eztiaren ekoizpena eta merkaturatzea hobetzea” izeneko kontusail berria onetsi zuten.

Eztiaren ekoizpena eta merkaturatzea hobetu nahi zutela adierazi zuten kontusaila sortu beharra zuzitzeko.

Hauxe jakin nahi dut:

1.- Burutu diren jardueren zerrenda, eta horietariko bakoitzarengatik hitzartu dena.

2.- Burutu diren ekintza bakoitzarengatik ordaindadutakoen zerrenda.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 19an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## **“Kontratu homologatuak sustatzea” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera**

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak “Kontratu homologatuak sustatzea” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

Andrés Basterra Layanak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako 1998ko Aurrekontu Orokorretan, “Kontratu homologatuak sustatzea” izeneko kontusaila onetsi zuten. Gehitu daitekeen milioi bat pezeta jarri zioten.

Diru-kopuru handiak jarri izan dituzte kontusail honetan aurreko urteetan, eta industriariei zainzuria erosteko finantzaketa emateko eta zainzuriaren salneurria defendatzeko erabili da.

Zainzuriaren sasoia aurreratua dagoenez, hauxe jakin nahi dut:

1.- Nekazaritza Departamentuak zenbat diru erabiliko duen zainzuriaren erosketa finantzatzeko.

2. Nafarroan zainzuria erosiko duten enpresarioei zenbat interes-puntu finantzatzeko zaien.

3.- Burutu diren ekintzen zerrenda, eta gaur egunera arte hitzartu den aurrekontu-kopurua.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 19an

Foru Parlamentaria: Andrés Basterra Layana

## “Azienden lehiaketa morfologikoa” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruzko galdera

ANDRES BASTERRA LAYANA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Andrés Bastera Layana Foru Parlamentari jaunak “Azienden lehiaketa morfologikoa” izeneko kontusailaren aurrekontu-betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Andrés Bastera Layanak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikita-

ko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako 1998ko Aurrekontu Orokorretan, Azienden lehiaketa morfologikoa izeneko kontusaila onetsi zuten, milioi bat pezetako kopuruarekin.

Hauxe jakin nahi dut:

1.- Hitzartu diren jardueren zerrenda, jarduera bakoitzaren zenbatekoarekin.

2.- Burutu diren ekintzen zerrenda eta jarduera bakoitzarengatik ordaindu den kopurua.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 19an

Foru Parlamentaria: Andrés Bastera Layana

## Noingo aireportuan ematen duten aire-garraio zerbitzuari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak Noingo aireportuan ematen duten aire-garraio zerbitzuari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Noingo aireportuan ematen duten aire-garraio zerbitzua dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

A) Nafarroako Gobernutik aire-garraioa esleitu zaion enpresa dela-eta:

1.- Esleipenduna behartuta al dago erabiltzen dituen hegazkinak jabetzan edo beste titulu juridiko batekin edukitzeko?

2.- Erabiltzen dituen hegazkinen identifikazioaz, Nafarroako Gobernuak horren berri izan behar du?

3.- Esleipendunak Gobernuari aurkeztu behar al dio erabiltzen dituen hegazkinen egoeraren eta kontrolen ziurtagiririk?

4. Esleipendunak eman al dezake zerbitzua beste enpresa batzuekiko frankizien bitartez?

5. Esleipendunak aire-zerbitzua betetzearen ebaluaziorik ba al da?

6. Administrazio-jarduketaren bati ekin al zaio erabiltzen diren hegazkinak egokiak diren argitzeko?



B) Iberia eta Aviaco enpresek aireportu beretik ematen duten aipatu zerbitzua dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Aipatu estatu-enpresetakoren batek hegaldi-lagapenen bat egiten badu berak eman behar duen zerbitzuaren eta zerbitzuaren lagapena esleitu daukan enpresaren artean:

1. Erabiltzaileari kalteren bat gerta dakioke konkurrentzia gutxitzeagatik?

2. Nafarroako Gobernuari kalteren bat gerta dakioke, lerro baten eta bestearen arteko bidaia-rien trukaketagatik?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 18an

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larráyoiz Lezáun

## **Ibilgailuen zatikapenean ari diren enpresei buruzko galdera**

### *MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, erabaki zuen Miguel Angel Larráyoiz Lezáun Foru Parlamentari jaunak ibilgailuen zatikapenean ari diren enpresei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

#### **GALDERAREN EDUKIA**

Miguel Angel Larráyoiz Lezáunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroan, gaur egun, badira ibilgailuen zatikapenean ari diren enpresak. Beste alde batetik, erabilitako ibilgailuak tratatu eta berreskuratzeko enpresa sortuko delako berria eman dute. Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1. Harremanen bat izan al da zatikapen-enpresek, beraien funtzionamendua Europako Bata-suneko eskakizunei egokitu diezaieten?

2. Ba al da enpresa horien funtzionamendua-ren ingurugiro-kontrolik?

3. Enpresa horiek ba al dute jarduera sailka-tuaren aldeko txostena, irekitzeko baimenaren aurretik?

4. Ba al da planik edo neurriak hartzeko kon-promisorik aipatu industrien ikuspegi-eragina gutxitzeko?

Iruñean, 1998ko maiatzaren 18an

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larráyoiz Lezáun

---

**G saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa**

### **Izendapen-proposamena**

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Dokumentalista postu bat betetzeko asmoz Mahaiak 1997ko uztailaren 2ko Erabakiaren bitartez (1997ko irailaren 5eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala eta irailaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala) deitutako oposizio-lehiaketa amaiturik, Epaimahaiak honako erabaki hauek jakinarazten ditu publikoki:

**1.-** Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko Dokumentalista postu bat betetzeko oposizio-lehiaketa gainditu dutenen zerrenda, puntuazioaren arabera hurrenkera duena, onestea. Honako hau da zerrenda:

1. Iturri Villanueva, Araceli ..... 54,85 puntu

**2.-** Nafarroako Parlamentuko Mahaiari Dokumentalista gisa Araceli Iturri Villanueva andrea izenda dezan proposatzea, dagokion oposizio-lehiaketarako deialdiko 7.1. oinarrian aurreikusitakoaren arabera. Deialdi hori 1997ko uztailaren 2an onetsi zen, eta 1997ko irailaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Aurrekoaren berri publikoki ematen da interesatuak deialdiko 7.2. oinarrian eskaturiko dokumentuak aurkez ditzan.

Iruñean, 1998ko martxoaren 15ean

Epaimahaiko Idazkaria: Luis Javier Fortún  
Pérez de Ciriza



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri  
edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 170 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--